

MATRIKULA PROZEDURA:

MATRIKULA EGUTEGIA:

Prozedura	Data/Matrikula egiteko ordutegia
Matrikula on-line	Urriaren 07ko 9:00etatik urriaren 14ko 23:59ak arte.
Osatutako taldeetan Ikaspostu liberrik balego, urriaren 16an, 16:00etan agertuko dira	INTERNET BIDEZ: Urriaren 16ko 16:00etatik urriaren 31ko 23:59ra arte

MATRIKULA ON-LINE PROZEDURA:

- Eskolako web orrian sartu (<http://eoip.educacion.navarra.es>) eta “Matrikula” botoia eta gero “Matrikula Mintza Taldeak” edo “Matrikula tailerrak” botoian klik egin.
- Programak ezartzen dituen pausuak segitu behar dira.

BETEBEHARRAK:

- Matrikulatzeko betebeharrekoa : 2024an 14 urte izatea edo betetzea

DOKUMENTAZIOA:

- NANaren fotokopia. IHEO honetako beste matrikula prozesuetan ekarri duenak ez du ekarri beharko.

TASAK:

- Ordainketa ON LINE, banku txartelaren bidez egingen da, izen-ematearen momentuan. Kasu berezietan Eskolako Administrazioan, hurrengo egunean, ordaindu ahal izango da banku txartelaren bidez.
- Ikasle batek matrikula burutu eta lanegun baten epean ez badu tasa ordaintzen edota matrikulatzerakoan eskatzen zaion dokumentazioa ekartzen, matrikula hau deuseztatu egingen zaio eta ez zaio dirurik itzuliko.

PREZIOA:

- 90' taldeak: 60,48 euro.
- 150' taldeak (Cucinare) 120,80 euro
- Irakurle taldeak: doan

KURTSOAREN HASIERA:

	IKASTAROAREN HASIERA	IKASTAROAREN BUKAERA
Astelehenetako taldeak	Urriaren 21ean	Urtarrilaren 20an
Astearteetako taldeak	Urriaren 22an	Urtarrilaren 21ean
Asteazkenetako taldeak	Urriaren 23an	Urtarrilaren 8an
Ostegunetako taldeak	Urriaren 24an	Urtarrilaren 9an
Euskara irakurle taldea*	Urriaren 30ean	Urtarrilaren 8an
Italiera irakurle taldea**	Azaroaren 5ean	Abenduaren 10ean

- 10 saio izanen dira
- * Euskararen irakurle klubak bostz saio izanen ditu: urriaren 30ean, azaroaren 13an eta 27an, abenduaren 11n eta urtarrilaren 8an.
- ** Italieraren irakurle klubak bi saio izanen ditu: azaroaren 5ean eta abenduaren 10ean

OSATUTAKO TALDEAK:

- Osatutako taldeak web orrian argitaratuko dira urriaren 15ean, 16:00etan.

TALDE ALDAKETA (osatutako taldeetan ikasposturik libre balego):

Bertan behera gelditu diren taldeetan matrikulatuta dauden ikasleendako bakarrik

- Urriaren 16an. Prozesu hau aurrez aurre Administrazioan egingen da, 9:00etatik 14:00ak arte.

IRAKURLE TALDEARI BURUZKO OHARRA:

- Euskara irakurle taldean matrikulatutakoek baliabide gelan hartu beharko dute lehen ipuina, eta irakurria ekarri beharkod dute lehen saiora.

OHAR OROKORRAK:

- Hizkuntza eta talde bakoitzean leku kopurua mugatua da. Ikasle kopurua: 15 (Taldea irekitzeko gutxieneko kopurua: 10.) Lekuak ikasleak matrikulatu ahala beteko dira.
- Matrikularen dirua ondorengo kasuetan bakarrik itzuliko da:
 - Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak ikastaroa ez ematea erabakitzen bada.
 - Ikastarora joateko ezintasuna justifikatzen bada, beti ere:
 - Ikastaroak irauten duen bitartean lan kontratua sinatzeagatik
 - Norberaren edo familia zuzenaren ospitaleratzeagatik.

Bi kasuetan idatziz justifikatu beharko da. GARRANTZITSUA: Matrikulari uko-egite eskaria bakarrik onartuko da taldeko ikasle kopurua dela eta, taldea bertan behera ez baldin bada gelditzen. Ikastaroa hasi ondoren ez da dirurik itzuliko.
- Eskolan Baliabide Gela bat dago, bertan kontsulta gela, ikus-entzunezko gunea, multimedia gela eta mailegu zerbitzua aurki ditzakezu
- Matrikulak ez du baliori izango, IHEOK geroago egingo duen berrikuspenaren ondotik dena zuzen dagoela ikusi arte.
- Esku-orritxo honetan argitaratzen den Informazioak aldaketak izan ditzake. Hauek, aldeztu aurretik iragarriko dira web orrian.